



servicio navarro  
de empleo -  
nafar lansare



# 2021 ENPRESENDAKO LAGUNTZAK

Enpleguaren bidezko  
enpresa garapena



**Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu** Zerbitzuak sostengu ematen dio enpresa garapenari, horretarako erabiliz biztanleria aktiboaren gaitasun profesionalak hobetzen dituen zerbitzuak eta lanpostuak atxikitzen eta sortzen dituzten enpresei laguntzeko neurriak: **kontrataziorako eta prestakuntzarako laguntzak, lanean ari diren pertsonendako ikastaroen es-kaintza, lan eskaintzen kudeaketa eta abar.**

Gure zerbitzuen zorroa kontsultatzeko  
[www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es)

# KONTRATAZIOA SUSTATZEA

Enpresa, langile autonomo eta irabazi-asmorik gabeko **erakundeentzako dirulaguntzak**.

NL-NEZen izena emanda dauden pertsonak	Aldi baterakoa			Mugagabe bilakatzea		Mugagabea	
	Praktikaldiko kontratu		Eta desgaitasuna dutenak (+%20)				
Gazteen Bermearen Sisteman inskribaturiko gazteak	Unibertsitateko titulua	5.100 €	6.120 €	5.200 €	5.720 €	5.200 €	5.720 €
	Goi mailako LH	4.350 €	5.220 €				
	Erdi mailako LH eta Profesionaltasun ziurtagiriak	3.600 €	4.320 €				
Plantillan 50 langile baino gehiago eta ekonomia mugitzen duten enpresetan (S3) kontratatutako 30 urtetik beherako gazteak	<b>Gutxieneko ordainsaria: LGSa bider 1,75</b>		<b>Eta errenta bermatuaren hartzaileak</b>				
	12 hilabete edo gehiagoko kontratua	990,00 €/hilab.	1.100,00 €/hilab.				
	6tik 12ra hilabete bitarteko kontratua	935,00 €/hilab.	1.045,00 €/hilab.				
Errenta bermatuaren hartzaileak		4.000 €	4.400 €	5.200 €	5.720 €	9.100 €	10.010 €
Luzaroko langabeak		4.000 €	4.400 €	5.200 €	5.720 €	9.100 €	10.010 €
Genero indarkeriaren biktimak		4.000 €	4.400 €	5.200 €	5.720 €	9.100 €	10.010 €
45 urtetik gorakoak				5.200 €	5.720 €	7.150 €	7.865 €
Berriro laneratzea				5.200 €	5.720 €	7.150 €	7.865 €
Desgaitasuna duten pertsonak*		4.000 €	4.400 €	5.200 €	5.720 €	7.500 €	8.250 €
Desgaitasun berezia duten pertsonak *		4.800 €	5.280 €	6.240 €	6.864 €	9.000 €	9.900 €
Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak kualifikaziorik gabeko 16 eta 25 urte bitarteko pertsonentzat, edo adin zehatzik gabeko pertsonentzat, beste kolektibo batzuen eta ikasleen kasuan		4.000 €	4.400 €				

## \*Desgaitasunaren arloko beste neurri batzuk

- **Aparteko laguntza:** 2.000 euro gehiago kontratu mugagabeak egiteko, langile autonomo batek egiten duen lehen kontratazioan eta desgaitasuna duten langileak kontratatzeke, lan-enklabe batetik edo enplegu zentro berezi batetik datozenak.
- **Lanpostura egokitzea (norbera babesteko bitartekoak,oztopoak kentzea, etab.):** 2.340 € bitarte.
- **Enpleguan laguntzea:** 350 eta 750 € artean hilean, desgaitasuna duen pertsonari bere lana gainerako langileen antzeko baldintzetan egiten laguntzen dioten langile espezializatuak kontratatzeagatik.
- **Erreserba-kuota eta ordezeko neurriak:** plantillan 50 pertsona edo gehiago dituzten enpresak behartuta daude lanpostuen % 2 desgaitasuna duten pertsonentzat gordetzera. Salbuespenez ehuneko horretara iritsi ezin badira, ordezeko neurriak hartu beharko dituzte, NL-NEZek onartu ondoren.

## Betebehar orokorrak

- **Zenbateko horiek lanaldi osoko kontratu mugagabeenak dira,** edo 12 hilabeteko edo gehiagoko aldi baterako kontratuak. Iraupena edo kontratuari dagokion lanaldia laburragoa bada, zenbatekoa proportzionala izan da.
- **Aldi baterako kontratazioa:** gutxienez 6 hilabete lanaldiaren % 50ean. Gehieneko dirulaguntza: 12 hilabeteri dagokio, luzapenak barne, horiek ere diruz laguntzen ahal baitira.
- **NL-NEZen izena emanda dauden langabeentzako kontratua.** Gazteei dagokienez, Gazteen Bermearen Sistemaren barnean daudenentzat ere bai, S3 enpresei buruzko deialdian izan ezik.
- **Eskaera egiteko epea:** hilabete, kontratua hasten denetik edo aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzen denetik.
- **Bateragarritasuna:** dirulaguntzak bateragarriak dira Nafarroako Gobernuaren edo beste erakunde publiko eta pribatu batzuen dirulaguntzekin. Pizgarrien zenbatekoak ezin du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

**Ikusi baldintza zehatzak dagozkien deialdietan**  
[www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es), Laguntzak eta Dirulaguntzak atala.

## Harremana

- **Laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak, prestakuntza eta ikaskuntzan daudenak eta gazteak kontratatzeke laguntzak:** [fomentoempleo@navarra.es](mailto:fomentoempleo@navarra.es) | 848 424 407 - 848 424 449.
- **Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke laguntzak:** [empleoydiscapacidad@navarra.es](mailto:empleoydiscapacidad@navarra.es) | 848 424 461/ 46/ 51.

# PRESTAKUNTZA

NL-NEZek ikastaroen eskaintza jarraitua du, zentro propioetan (Iturrondo, agentziak edo beste espazio publiko batzuk) edo diruz lagundutako erakundeetan ematen dituen, Lanbide Heziketako ikastetxe pribatuak barne. Zeharkako prestakuntza; berariazkoa da Gizarte Ekonomiako langileentzat, autonomoentzat, desgaitasuna dutenentzat edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek ukitutakoentzat; eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari lotutako sektoreentzat..

Gainera, honako neurri hauek ematen dizkie enpresei eta sektoreei, langile kualifikatuak izateko, talentuari eusteko eta lanbide eta enpresa garapena bultzatzeko:

## **Prestakuntzarako laguntzak, kontratatze konpromisoa dakartenak**

**NORENTZAT:** etorkizuneko langileak prestatzen dituzten enpresak, gutxienez ere prestatutako ikasleen %40 kontratatze konpromisoa hartzen badute.

**Laguntza:** 6etik 8 euro bitarte, prestakuntzako parte-hartzaile eta ordu bakoitzeko, muga 300 ordu izanik lagun bakoitzeko.

**Eskaerak egiteko epea:** urte osoan eskuragai.

**Harremanetarako:** sgestionf@navarra.es | 848 424 432.

## **Prestakuntza estrategikoa**

NL-NEZek sektore estrategikoen funtsezko beharrei edo politika publikoetatik sortutakoei erantzuten die **“Proiektu bereziak”** eta **“Adapta/Moldatuz”** lerroen bitartez.

**Harremanetarako:** equipo.tecnico.sne@navarra.es | 848 424 428.

## **Ikastunen eskola sektorialak**

Lan inguruneetako enplegurako prestakuntza programa, hainbat administrazioen neurriak bateratzen dituena. Ibilbideak barnean hartzen ditu hauetakoak, kontratatze konpromisoa duen prestakuntza, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua, laneratzeko laguntza edo lanbide-orientazioa.

## **Lidera**

Garapen profesionala enpresa aldaketaren protagonistentzat: enpresarientzat, zuzendaritzako langileentzat, agintarientzat eta teknikari estrategikoentzat.

Prestakuntza ez-formala, dibulgazioa eta sentsibilizazioa (tailerrak, jardunaldiak, web-mintegiak, zikloak edo bideo-pilulak), enpresa eta lanbide erakundeek eskatzen dituztenak.

## **YouTube eta [www.empleolansare.es](http://www.empleolansare.es) kanala**

Ikastaroak, web mintegiak, eta bideo eta podcast moduko pilulak, lanbide arloan hobetzeko eta berrikuntzari eta joerei dagokienez jakintzak eguneratuta izateko.

# IKASKUNTZA

## Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua

**AHOLKUAK** kualifikaziorik gabeko apendizak hartu nahi dituzten sektoreei/enpresei. Besteren artean, abantaila hauek: kontratua eta finantzatutako prestakuntza-akordioa. Bateragarria kontratatzeke konpromisoa duten prestakuntza laguntzekin, besteak beste.

**Argibide gehiago:** [servformempleo@navarra.es](mailto:servformempleo@navarra.es) | 848 424 431.

## Lanekoak ez diren praktiketarako hitzarmenak

**NORENTZAT:** Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin akordioak egiten dituzten enpresak beka emateko gazte langabe tituludunei baina lan-esperientzia gutxi edo deus ez dutenei, beka bukatzean kontratua egiteko aukerarekin.

**Harremana:** [ofertas2@navarra.es](mailto:ofertas2@navarra.es) | 848 425 844.

# ESKAITZEN KUDEAKETA

## Enplegu eskaintzen kudeaketa enpresa eta erakundeetan lanpostu hutsak betetzeko

### Hona zer eskaintzen duen NL-NEZak:

- Aholkularitza eta langileak bilatzeko zerbitzuak.
- Eskaintzak argitaratzea (aukeran), hemen: [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) edo mugikorreko aplikazioan.
- Hautagaien aurretiko eta behin betiko hautaketa, eta bilaketa atzerrian (Eures sarea).
- Instalazioen lagapena, hautaketa prozesuetarako. .

**Enplegu eskaintzetan alta ematea eta aurkeztea:** [empleo.navarra.es](http://empleo.navarra.es).

**Kontsultak:** behar den enplegu agentzian.

## Información sobre incentivos y contratación

- Pizgarrien eta kontratazioaren gaineko informazioa Estatuko hobari eta pizgarrien gaineko informazioa.
- Kontratazio modalitateak.
- Kontratuak komunikatzeko betebeharra (Contrat@).

**NON:** Iruñeko eta Iruñerriko Enpresen Agentzian edo kasuan kasuko eskualdeko agentzian.

# ETA GAINERA

## Laguntzak ekonomia sozialari

- Langabetuak bazkide moduan sartzea
- Bazkideen sarrera.
- Enpresak kooperatiba eta lan sozietate bilakatzea.
- Inbertsioak.
- Sentsibilizazioa eta sustapena.


## Ekintzailtza eta lan autonomoa

- Aholkularitza: enplegu plana, laguntzak eta finantzaketa, etab.
- 2.000 €-tik 3.500 €-ra bitarteko diru-laguntzak langabeentzat, lan autonomoan alta berriak egiteko.


## Kontziliazioa

- Besteren konturako langileak: gehienez 420 € hilean. Gehienez (guztira): 2.520 €.
- Norberaren konturako langileak: gehienez 306 € hilean. Gehienez (guztira): 4.320 €.

# INFORMAZIO GUZTIA “KLIK” eginda eskuratzeko: [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es)



## Enplegu Agentziak



**Iruñeko eta Iruñerriko enpresen agentzia**  
Atarrabiako etorbidea 1. 31600, Burlata.

**Lan eskaintzen kudeaketa**  
Aurretiko eta behin betiko hautaketa, instalazioen lagapena.  
**848 425 801 | [empleo.empresas@navarra.es](mailto:empleo.empresas@navarra.es)**

**Kontratuak**  
Motak, pizgarriak, enplegua sustatzeko neurriak, erregistroa eta Contrat@.  
**848 425 802 | [empleo.empresas@navarra.es](mailto:empleo.empresas@navarra.es)**

**TUDELA.** Díaz Bravo, 20-22  
948 821 870 | [emtudela@navarra.es](mailto:emtudela@navarra.es)

**ALTSASU / ALSASUA.** Iruñeko etorbidea  
948 562 754 | [ealsasua@navarra.es](mailto:ealsasua@navarra.es)

**AOIZ / AGOITZ.** Kanpondoa urb., 45  
948 336 179 | [emplaoiz@navarra.es](mailto:emplaoiz@navarra.es)

**ESTELLA-LIZARRA.** La Gallarda k., 2  
948 550 712 | [eestella@navarra.es](mailto:eestella@navarra.es)

**LODOSA.** Calvario, 1  
948 693 408 | [emlodosa@navarra.es](mailto:emlodosa@navarra.es)

**DONEZTEBE / SANTESTEBAN.** Leitza, 1  
948 450 309 | [esantest@navarra.es](mailto:esantest@navarra.es)

**TAFALLA.** Aita Calatayud, 19  
948 700 400 | [etafalla@navarra.es](mailto:etafalla@navarra.es)



**servicio navarro  
de empleo -  
nafar lansare**

